



## 'BIZIDENDAK' MERKATARITZA-BONOA ABIARAZI DA

Vital Fundazioak 'BIZIdendak' kanpaina abiarazi du, Arabako saltoki txikiaren biziraupenari laguntzeko ekimena. Merkataritza-bonoak jarriko dira zirkulazioan, 500.000 euroko balioa izango dute orotara, AENKOMER-Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako enpresarien, Gasteiz On eta Araba Dendak elkarteekin laguntzaz

- <https://bizidendak.fundacionvital.eus> plataformaren bidez, herritarrek bonuak erosi ahal izango dituzte, eta, ondoren, ekimenarekin bat egiten duzuen edozein establezimendutan trukatu.
- Kanpaina guztiz DOAKOA da zure establezimenduarentzat, eta herritarrek gogokoen dituzten saltokietan erosketak aurre ditzaten balioko du, hartara, berehalako LIKIDEZIA emango dizuete eta bizirauten lagundu.
- Bi BONU mota merkaturatuko dira: 10.000 bonu, 30 €-ko kostua izango dutenak eroslearentzat eta Vital Fundazioak 10 € gehituko dizkie (beraz, 40 € gastatzeko aukera emango dute) eta 5.000 bonu, 15 €-koak eroslearentzat eta Vital Fundazioak 5 € gehituko dizkie horiei (beraz, 20 € gastatzeko aukera emango dute).
- Bezero bakoitzak gehienez BI bonu erosi ahal izango ditu, mota bakoitzeko bonu bat. Bonu horiek metatu ahal izango dira erosketak bera ordaintzeko.
- Zure establezimenduak, epe laburrean jasoko du bezeroek zure saltokian egindako erosketak aurreratuen DIRU-SARRERA.
- Bezeroek 2020ko abenduaren 31ra arte trukatu ahal izango dituzte bonuak.

### Zure establezimenduak bete behar dituen baldintzak

1. Alarma-egoera dela-eta ITXITA egotea edo EGON IZANA
2. Egoitza fiskala ARABAN izatea
3. Kanpainan ONARTUTAKO JEZen (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren) epigrafeetako batekoa izatea (64, 65, 66, 67, 97). Kanpoan geratu dira honako JEZ hauek, establezimenduek alarma-egoeraren ondorioz itxi behar izan badute ere: 663 – 664 – 665 – 674 – 677 – 974 – 979.

4. Gehienez 24 LANGILE izatea (langile autonomoak kontuan hartuta).
5. URTEKO NEGOZIO bolumena eta/edo urteko balantze orokorra 5 milioi eurokoa edo hortik beherakoa izatea.

## Zer egin behar dut izena emateko?

---

1. Kanpaina maiatzaren 8an, ostirala, hasiko da ofizialki, eta egun horretatik aurrera eskatu ahal izango duzu atxikimendua, <https://bizidendak.fundacionvital.eus> plataformaren bidez.
2. Eskatzen diren zure establezimenduaren datuak jasotzen dituen inprimakia betetzea.
3. Baldintzak betetzen dituzula egiaztatu ondoren, zure establezimendua kanpainara atxiki izanaren baieztapena jasoko duzu posta elektronikoz epe laburrean, baita bezeroak zure establezimendura joaten direnean bonuak trukatzeko jarraitu beharreko jarraibideak ere.
4. Bezeroek maiatzaren 16tik, larunbata, maiatzaren 25era arte erosi ahal izango dituzte bonuak plataforman.

*Guzti-guztion babesaren bultzadaz baino ez da berreskuratuko gure merkataritza-ingurunea osatzen duten establezimenduen jarduera ekonomikoa, hau da, auzo, herri eta hiriéi biziá ematen díeten horien jarduna!*

